

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2023ko martxoaren 29a, asteazkena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:00

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbietta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Bakarne Oliden Albeniz zinegotziak (EH Bildu) adierazi du ezin zuela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.

Gai-zerrenda

- 1.- 2022ko 4. hiruhileko berankortasun-txostenaren berri ematea.
- 2.- Otsailaren 15eko 88/2023 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretuak 2/2023 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea onartzen du. Espedientea kreditua txertatzeko modalitatean egina dago.
- 3.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 3/2023 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 4.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 4/2023 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago.
- 5.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Udalaren erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, saltokiak, ikuskizunak, atrakzioak edo jolasak jartzeko tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketari.
- 6.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, udal-kanpina erabiltzeko partzelak erreserbatu eta deuseztatzeko baldintzak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketari.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalerriko kale-garbiketa zerbitzua kontratatzeko baldintza administratibo partikularren eta baldintza teknikoen pleguak. Kontratazioa prozedura irekiz eta ohiko tramitazioz egingo da, araubide harmonizatuari lotuta.
- 8.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- 2022KO 4. HIRUHILEKO BERANKORTASUN-TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

2.- OTSAILAREN 15EKO 88/2023 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETUAK 2/2023 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEN DU. ESPEDIENTEA KREDITUA TXERTATZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Otsailaren 15eko 88/2023 alkate-dekretuaren bidez onartutako 2/2023 espedientea kreditua txertatzeko modalitatean egina dago eta 2.040.772,35 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

3.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 3/2023 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 3/2023 zenbakidun espedientearen kreditua transferitzeko modalitatean egin da eta 163.242 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2023ko martxoaren 24an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA udal-aurrekontu propioaren 3/2023 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientearen kreditua transferitzeko modalitatean egin da eta 163.242 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailatza

b) Espedientearen aztertze eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko lekua: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientearen behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 4/2023 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 4/2023 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 595.906 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2023ko martxoaren 24an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA udal-aurrekontu propioaren 4/2023 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 595.906 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko lekua: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

5.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, UDALAREN ERABILERA PUBLIKOKO LURRETAN POSTUAK, BARRAKAK, SALTOKIAK, IKUSKIZUNAK, ATRAKZIOAK EDO JOLASAK JARTZEKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2023ko martxoaren 24an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU**

ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, saltokiak, ikuskizunak, atrakzioak edo jolasak jartzeko tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketari. Tasak barnean hartzen ditu, baita ere, kaleko industriak, industria ibiltariak eta zinema-filmaketak.

2.- Erabaki hau eta hasitako espedientea jendaurrean jartzen dira, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan iragarkiak argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Udaletxeko idazkaritzan.

b) Espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita; betiere, bulego-orduetan.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

6.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, UDAL-KANPINA ERABILTZEKO PARTZELAK ERRESERBATU ETA DEUSEZTATZEKO BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2023ko martxoaren 24an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA udal-kanpina erabiltzeko partzelak erreserbatu eta deuseztatzeko baldintzak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketari.

2.- Erabaki hau eta hasitako espedientea jendaurrean jartzen dira, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betetz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan iragarkiak argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Udal-idazkaritzan.

b) Espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita; betiere, bulego-orduetan.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALERRIKO KALE-GARBIKETA ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAK. KONTRATAZIOA PROZEDURA IREKIZ ETA OHIKO TRAMITAZIOZ EGINGO DA, ARAUBIDE HARMONIZATUARI LOTUTA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ingurumena, Obrak eta Zerbitzuak batzordeak 2023ko martxoaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA Orioko Udalerriko kale-garbiketa zerbitzua kontratatzeke baldintza administratibo partikularren eta baldintza teknikoaren pleguak. Kontratazioa prozedura irekiz eta ohiko tramitazioz egingo da, araubide harmonizatuari lotuta.

Emandako botoa azaltzeko, Beñat Solaberrieta zinegotziak hartzen du hitza, Ingurumena, Obra eta Zerbitzuak batzordeko burua den aldetik, eta adierazten du aipatutako agiriak onartzeak zama ekonomiko eta finantzario handia dakarkiola Udalaren gastu arruntari, baina, aldi berean, hobekuntza handia dakarrela inbertsioen arloan, eta nabarmentzekoa dela Udalak nolako ahalegin ekonomikoa egiten duen herriko kale-garbiketa zerbitzua indartzeko udaldian eta Aste Santuan. Bestalde, adierazten du pleguetan, kale-garbiketa zerbitzua emateko behar den makineria

amortizatzeko epeak ezartzen direla eta, horren arabera, kontratuaren iraupena amaitu ondoren, makineria hori Orioko Udalaren jabetzakoa izango dela.

Gai-zerrendatik kanpo, udalbatzarrak ondoren jasotzen den **ERABAKI HAU HARTU DU**, alde zurretik **AHO BATEZ** urgentetzat jota [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

9.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL MUSIKA ESKOLAKO 2023-2024 IKASTURTEKO MUSIKA-IKASKETEN TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Ordenantza fiskalaren aldaketarekin batera tasa akademikoak murrizteko araudia aldatzea ere proposatzen da.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kultura eta Festetako batzordeak 2023ko martxoaren 28an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udal Musika Eskolako 2023-2024 ikasturteko musika-ikasketen tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren eta tasa horiek murrizteko araudiaren aldaketari

2.- Erabaki hau eta hasitako espedienteak jendaurrean jartzen dira, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betetz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan iragarkiak argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Udal-idazkaritzan.

b) Espedienteak aztertu eta erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita; betiere, bulego-orduetan.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

8.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Ez ziren izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,